



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

Data: 2018/02/14

Bilera zenbakia: 02

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan udaletxean

Parte-hartzaileak: Rosi, Nekane, Marijo, Amaia, Xabi eta Maddi

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. KULTUR AGENDAREN ERREPASOA

- Euskal Herriko Mus Txapelketa

5 bikote inguruk parte hartu omen zuten eta giro polita sortu zen. Aldizkarirako artikulua eta argazkiak Ikerrri eskatuko dizkiogu.

- Ijito eguna

Nekane dio iaz baino jende gutxiago ibili zela, eguraldiak ere ez zuen gehiegi lagundu. Ondorioz, aurreikusita zuten kalejirarik ez zuten egin, baina ijito besoa bai. Orokorrean parte hartu zutenak gustura ibili ziren.

HEMENDIK AURRERAKOAK

- Otsailak 23 SUKALDE TAILERRA

Izena emateko orriak jarrita daude eta oraingoaz 13k eman dute izena. Azken eguna 21a izango da, beraz, inguruko jendea animatu.

- Martxoak 10 EMAKUMEON NAZIOARTEKO EGUNEN BAZKARIA

Aurten greba deialdia aurreikusita dago martxoaren 8rako. Afarirako bi bertsolari ekarri nahi genituen (emakumezkoak), baina greba deialdiarekin bat egingo dutela eta afari hau martxoaren 10era atzeratzea erabaki da, bazkaria izango delarik. Inguruko emakumeak gonbidatu eta animatu bazkarira. Martxoaren 8an posible da kontzentrazioaren bat egitea, hortaz Ongizate batzordekoak arduratuko dira, beraz, adi egon deialdietara.

2. KOMUNIAZIOAREN GAIA LANDU DUGU

Lehendabizi, herriko ekintzak komunikatzeko erabiltzen ditugun hedabideak identifikatu ditugu guztion artean, honakoak atera direlarik: Pantailak, whatsapp-a, buzoneoa, aldizkaria, prentsa, ahoz-ahokoa (norberaren baitakoa) eta webgunea.

Ondoren, bakoitzak bere elkartearen izenean eta modu pertsonalean pentsatuz eraginkortasunaren arabera ordenatu dituzte eta hauen alderdi positiboak eta negatiboak identifikatu ditugu.

Lehenengo postuetan Herri Bizitza Whatsapp taldea, pantailak eta ahoz-ahokoa atera dira. Ondoren, buzoneoa, aldizkaria, prentsa eta azken tokian webgunea.

	POSITIBOA	NEGATIBOA
PANTAILAK	Leku estrategikoetan kokatuta daude, jende askok ikusten ditu.	Oso azkar pasatzen dira eta informazioa irakurtzeko astia beti ez du ematen.
HERRI BIZITZA WHATSAPPA	Oso azkar iristen dira mezuak, gogorazpenek egunean mantentzen gaituzte.	Taldeak ondo funtzionatzen duela uste badugu ere, orokorrean (talde asko ditugulako) <i>bonbardeo</i> handia dago.
AHOZ-AHO	Erraza eta azkarra da	Informazioa emateko beste hedabide batzuetako informazioan oinarritzen gara askotan ("fidagarritasun falta")
BUZONEOA	Oso eraginkorra da, etxe guztietara heltzen da.	Paper asko erabiltzen da, ekintza guztiak horrela ezin ditugu zabaldu.
PRENTSA	Egunerokorako ondo daude (hitza adibidez)	Herriko ekintzen berri ez dugu hemendik izaten.
WEBGUNEA		Ez dago hau bisitatzeko ohiturarik, whatsapp taldera link-ak bidali ezkerok bai.

Ondoren, gaur egun, elkarteek beraien ekintzen berri udalarekiko duten harremanaz hitz egin dugu, nola egiten den, erraza / zaila den, eraginkorra den... Gaiari lotuta kontuan izan beharko ditugun hainbat alderdi atera dira mahai gainera:

- **Informazioa.** Garrantzitsua da zabaldu nahi den informazioa argi eta garbi bidaltzea, nahasteak egon ez daitezten.
- **Epeak.** Informazio bat zabaltzerako orduan, hedabidearen arabera komenigarria da epeak kontutan izatea.
- **Formatua.** Jakina da elkarte guztiek ez dutela informazioa modu berdinean ekarriko, batzuk paperean, besteak korreoz... kontuan izan bide desberdin hauek.
- **Hedabidea zehaztu.** Informazioa entregatzerako orduan, garrantzitsua da zein bidetatik zabaldu nahi den zehaztea.
- **Argazkiak.** Gai honetaz hitz egitean, argazkien inguruko gaia ere atera da. Azken aldi sarritan diogu ekintza desberdinen inguruko argazkiak ez direla udalera iristen eta beraz, artxiboa galtzen ari garela. Horretarako, komenigarria izan daiteke elkarte bakoitzetik pare bat pertsona hortaz arduratzea eta whatsapp bitartez adibidez, udaleko mugikorrera bidaltzea.

Gai/arlo hauek identifikatuta, hurrengo hilabeteko bilerarako txantiloi batzuk prestatuko ditugu eta guztion artean egokiena eta eraginkorrena aukeratzen saiatuko gara.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
Komunikazioaren gaia itxi, txantiloia finkatu	MADDI	Martxoaren 14a
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera MARTXOAren 14an izango da. GAIA: KOMUNIKAZIOA		